

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIOA

IDEIA:

2 kamioi

Asteazken zehar baserrira joan etorriak egiteko

Aste bukaeretan etxetara bidaltzeko

Banaketa igandean egingo dira; hurrengo asteko jadanik janaria prest izan dezaten.

Gure proiektua asteko janari-kiten zerbitzu bat da, bazkaria eta afaria barne hartzen dituen. Janari osasuntsua eta orekatua eskaintzea da helburu nagusia, eguneroko otorduak pentsatzea zaila egiten zaien pertsonen laguntzeko. Zerbitzu hau unibertsitateko ikasleei, familiei eta adineko pertsonen zuzenduta dago, izan ere, talde horiek askotan denbora falta edo anolaketa arazoak izaten dituzte elikadurarekin.

Bezeroek hileko harpidetza baten bidez ordainduko dute zerbitzua. Ordainketa eginda, astero janari-kutxa bat jasoko dute etxean, aste osoko bazkariak eta afariak prestatzeko beharrezkoa den janariarekin. Une honetan, janari-kutxa mota bakarra eskaiiko da, menu sinple eta osasuntsuarekin, denentzako egokia izan dadin.

Bezeroek harremanetan jartzeko eta gure balio-proposamena helarazteko, honako komunikazio-kanalak erabiliko ditugu. Kanal nagusia webgunea izango da, bertan zerbitzuaren informazio guztia, menuen adibideak, prezioak eta harpidetza egiteko aukera azalduko dira. Webgunea erraza eta argia izango da, edonork erabili ahal izateko. Gainera, sare sozialak erabiliko dira, hala nola Instagram, TikTok eta Facebook, proiektua zabaltzeko eta jende gehiagorengana iristeko. Sare sozialen bidez, janari osasuntsuaren garrantzia azalduko da eta zerbitzuaren onurak erakutsiko dira.

Horrez gain, email bidezko komunikazioa erabiliko da bezeroekin harreman zuzena izateko. Bezeroei asteko menuen berri emango zaie, aldaketak jakinaraziko dira eta zalantzak argitzeko aukera eskainiko da. Unibertsitateetan, adinekoen zentroetan eta gizarte-guneetan kartelak jarriko dira, teknologia gutxiago erabiltzen duten pertsonen ere zerbitzuaren berri izan dezaten.

Banaketa-sistemari dagokionez, janari-kutxak astero banatuko dira bezeroen etxetara. Banaketa garraio-enpresa baten bidez edo banaketa propioaren bidez egingo da, beti ere janariaren kalitatea eta segurtasuna bermatzeko. Kutxak baldintza egokitean prestatuko dira, elikagaiak egoera onean iritsi daitezela.

Bezeroarekiko harremana bost faseetan antolaguko da. Lehenik, bezeroek zerbitzua ezagutuko dute. Hirugarren fasean, online harpidetza eginiko dute modu errazean. Laugarren fasean,

astero janari-kutxa jasoko dute etxean. Azkenik, salmenta ondorengo fasean, bezeroen iritziak jasoko dira eta arreta pertsonalizatua eskainiko da.

Azken batean, gure proiektuaren balio nagusia erosotasuna, janari osasuntsua eta denbora aurreztea da. Aukeratutako kanal guztien bidez mezu bera helaraziko da, bezeroek ezperientzia ona izan dezaten eta zerbitzua eguneroko laguntza erabilgarria bihurtu dadin.